

## **II. Eranskina**

Irisgarritasuna sustatzeko legea betetzearen justifikazioa

(Eusko Jaurlaritzako Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legea, eta Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua)

20/1997 Legearen "17. artikulua" k adierazten duena eranskin honekin betetzen da, legean azaltzen diren "irisgarritasuna sustatzeko" baldintzak betetzeko Proiektu honek zehazten duenarekin betetzen dela frogatuta gelditzen delarik.

Proiektuaren beste dokumentutan azalduta gelditu den bezala, esparruan jabetza publikoko espaloi berri bat definitzen da, egun dauden sarbideak zabaltzen dira, eta dagoen errepidea aprobetxatzen da:

- Travesía Rodil, azpiesparruko ekialdetik garraioen eta oinezkoen sarbidea ahalbidetzen du. Gaur egun, kaleak espaloia alde batean du bakarrik, eta espaloi berri bat egingo da errepidearen beste aldean, goitik datorren espaloia jarraitasuna emanez.
- Arbola ibilbidea, azpiesparruko mendebaldetik igotzen da, Rodil Pasealekuarekin elkartuz, eta iparraldetik esparruko alde gorenarekin Arbola Pasealekua errepideraino. Kota diferentzia handiak lotzen dira eskaileren bitartez, zabaldu eta hobetuko direnak. Halere, ezinezkoa du irisgarritasuna duen ibilbidea izan.


Partzela pribatuaren barruan dauden erabilera publikoko gunetan, hurrengo sarbideak eta gunek proposatzen dira:

- Rodil Pasealekutik, urbanizaziora sartzeko, garraioen eta oinezkoen bizikidetasun espazio irekia proposatzen da, egun dagoen errepidearen altuera berdinean (+40tik +43 kotara).
- Proposatzen diren bi eraikinen artean, bizikidetasun espazio irekiari jarraitasuna emanez, ibilbide irisgarri bat proposatzen da, beheko eraikinaren etxebizitza batzuen sarrera egiteko balioko dena, +45 kotan dagoen garajeen sarreraraino iritsiz. Gune honetatik +48,5 kotan dagoen oinezkoen espaziora, eskaileren bidez edo hurrengo puntuan zehazten den oinezko ibilbidearen bidez iritsi ahal izango da.
- Rodil Pasealekuko goiko gunetik (egun dagoen errepidearen ondoan egingo den espaloi berritik, hain zuzen ere), irisgarritasuna duen ibilbidea sortzen da. +48,5 kotaraino iritsiko da, atalondoan sarrerak ahalbidetuz eta Arbola Ibilbidearen eskaileretaraino iritsiz. %6a baino txikiagoa izango den malda edukiko du bere ibilbide guztian zehar. Proiektatzen den etxebizitza garapen berriaren oinezkoen ibilbidea izango da. Etxebizitzaren kirol eta aisiaren gunera iristeko sortzen den ibilbidearekin lotzen da baita ere.
- Azpiesparruaren mendebaldean dagoen oinezko gunetik, hegoaldean kokatzen den oinezko ibilbidera eta Arbola Ibilbidera iritsi ahal izango da.

Zabalerari dagokionez, proiektatuta dauden ibilbide guztiak bete beharreko zabalera minimoa izango dute -2.00 m-.

Donostian, 2019ko maiatza

Sinatuta: David Véliz Ramas



Sinatuta: Gorane Mendizabal Trujillo



g+d arkitektura